

## 2. Merkatuaren segmentazioa

Gure merkatu mota masiboa izango da, panel fotovoltaikoak argia ordaindu ezin duten pertsona edo familientzat pentsatuta dagoelako. Hau da, behar berdinak edo oso parekoak dituzte eta egoera honetan dauden pertsonen kopurua nahiko handia da.

Hala ere, diru arazoak ez duten pertsonak ere erosi dezakete gure panelak baina ez dute inolako laguntzarik izango ordaintzeko momentuan. Lehen aipatu bezala, bezero mota hauei panelak saltzea izango da gure lehenbiziko helburua, horrela, haiengandik lortutako dirua, argiaren kostuekin arazoak dituzten pertsonen lagun ahal izango diegu.

Orokorrean hitu bezero mota izango ditugula esan daiteke:

1. Arrunta: panelak prezio normalean ordainduko dituztenak.
2. Finantza laguntzak izango dituztenak: panelak hilabeteroko ordainketak egiten ordainduko dituztenak (beharbada prezio murriztuetan fundazioaren laguntzarekin).
3. Dohainik lortuko dituztenak: familiaren errentak kontuan izanda ordainketarik gabe panelak izango dituztenak.

Azkenik, gure panel fotovoltaikoak ezarriko ahal izango dira etxe bizitzetan (pisuak dituzten eraikinetan, auzoko komunitateak ados jarri beharko dira), eskola eta institutu pribatu eta kontzertatuetan.